

# Landareak

JAKOBA ERREKONDO

## Makulu

ADARJOTZAILEARI HARPA ERAKUSTEN DION lagunak, Bengalako banyaz, *Ficus benghalensis*, ari ginela, galdera luzatu dit: nola arraio liteke zuhaitz bakar batek 20.000 metro koadro itzalpetzea? Hasteko, galanta izanda. Eta segidan, sekula bukatzen ez den hazkundea eraikiz. Zuhaitzaren trikimailua: adarrak zabaldu eta tarteka goitik behera sustraiak luzatu, lurrera iristean itsatsi eta adarra areago zabaltzeko makulu izango diren sustraiak. Sustrai makulu hauei zutabe sustraiak deitzen zaie. Zutabeak adarra bermatzeaz gain jaki berriz hornituko du, adarra nahi ahala hazi eta luzatuko da eta zuhaitzak ikaragarritzko zabalera hartuko du.

Sasoi honetan tankeratsu berrmatuta ikusten ditut nik beste arbola batzuk, baita hemengo pikondoak ere, *Ficus carica*, baina batez ere sagarrondoak, *Malus x domestica*. Aurtengoa bezalako sagar urteetan sagarrondoan adarrek izugarritzko sagar-karga hartzen dute eta nola-hala ez balitzaie lagunduko eraitsi eta krak, zartatuko lirakeke. Belauneko katilua hautsia duenari bezala, sagarrondo zamatuari makuluak eman behar. Txardangoak jartzen zaizkio adarrari, hautsi gabe eutsi eta gero azpian sagarra biltzeko modua izateko. Eusteko soilik izaki, sagarrondoaren adarra ez da askoz gehiago zabalduko, txardangotik elikatuko balitz beste upeleko sagardoak litzateke. Gaztaina (*Castanea sativa*), haltza (*Alnus glutinosa*), hurritza (*Corylus avellana*), eskura dagoenarekin egiten da txardangoa, baina adar bat erditu eta bitan banatzen den urkila berezkoa behar du. Kanaberak, adibi-



VIRGINIA TABUENCA-CC BY SA

Banbuz egindako aldamia, Txinan.

dez, ez du balio makulutarako. Dena delakoaren espezieko kanabera izanagatik –kanabera bera, *Arundo donax*, edo banbuak, *Bambusa* sp. etab.– ez du txardangorik izango eta ezin euste lanerako erabili. Beste lan batzuetarako, aldiz, paregabea da kanabera. Esate baterako, banya erraldoiaren lurralde haietan aldamiu egituretarako darabilte. 40 solairuko etxeei edo forma harrigarriei eusteko bikainak.



ASTER GALDÓS

## Narra

Iraileko lanetarako aproposa da narra. Edozein lera edo gurdi sortu aurretik makina bat narra ibiliko zen gure mendietan behera. Ira edo garoen lanak egiteko sasoi honetan hona narra, Telleriarte aldekoa argazkikoa. Adar nagusi baten gainean, garraiatu behar den belar, adar, garo, inaurkin edo dena delakoa jarri eta azpiko adar nagusiari tiraka eramateko garaitako egitura. Edozer gauza herrestan eramateari narraka, narraz... esaten zaio.